

Nolako egurra, halako ezpala



1

gurasoak
Heziz


EGILEAK:

Proiektuaren arduraduna:	Juxto Egaña (HABEko Hizkuntzaren Didaktika arduraduna)
Pedagogi diseinua:	Begoña Martinez (HABEko teknikaria) Sabin Zabala (HABEko teknikaria)
Errealizazio didaktikoa:	Xabier Elortza (HABEko teknikaria) Alex Mungia (HABEko teknikaria)
Ikastunitatearen egilea:	Jokin Nazabal (Hernaniko udal-euskaltegia)
Errealizazioa:	Juan Miguel Gutierrez (HABEko teknikaria)
Irudia eta diseinu grafikoa:	Aitor Amutxastegi (HABEko teknikaria) Sabin Arzeluz (HABEko teknikaria)
Idazkariak:	Mertxe Salegi (HABEko idazkaria) Beatriz Iturriotz (HABEko idazkaria)

© HABE 2001. ISBN 84-95827-04-2 (Liburuxka honena)

© HABE 2001. ISBN 84-95827-02-6 (Sail osoarena)

Legezko gordailua: SS-906/01

Inprimaketa:  gertu. oñati. tfnoa: 943 78 33 09. gertu@telefonica.net

HABE erakundeak eskerrak ematen dizkio Hernaniko udal-euskaltegiari euskaltegiari materialgintza proiektu honetan parte hartzerakoan agertu duen borondateagatik.

Halaber, esker ona luzatu nahi die euskalduntze-alfabetatzegintzan diharduten euskaltegi guztiei, beren esperientzia eta ekarpena baliagarri izan direlako.

Diseinua, maketazioa eta marrazkiak:  eragin | www.eragin.com

Gure esker ona ondoren aipatzen direnei, hainbat material eta ideia hartzeko baimena eman digutelako:

Neba-arrebak. Salako leihoa. Euskadi Irratia.

Zergatik jaiotzen da haur gutxi Euskal Herrian. Lauretan Babel. Euskadi Irratia

Neba-arrebarik gabeko haurrak. HABE aldizkaria, 308

Zigorra. Salako leihoa. Euskadi Irratia.

Gurasoak, oro har, galdu samar dabilta seme-alaben heziketan. J. Egia. Euskaldunon egunkaria, 2001eko urtarrilaren 4a.

Nikolas Txiki. Sempé/Gosciny. Itzul saila. Elkar, 1982.

Filmak:

Euskal Telebista

Bihotz ondoko sekretuak, Montxo Armendariz

Bezerao, Joel Schumacher

Días de radio, Woody Allen

Etxean bakarrik II, Chris Columbus

Nolako egurra, halako ezpala



1

gurasoak
Heziz

AURKIBIDEA

1. SARRERA

- 1. Lan-egitasmoa **6**
- 2. Ikastunitatearen ibilbidea **7**

2. ATAZAK

- A. ataza: Seme-alabak, nolakoak? **8**
- B. ataza: Gero eta gutxiago **18**
- C. ataza: Seme-alabak hezi **26**

3. MATERIAL OSAGARRIAK

- A. Gaur afaldu gabe **31**

4. AUTOEBALUAZIO-ORRIA **34**

1. LAN-EGITASMOA

Unitate honetan seme-alabak izango ditugu ardatz. Guraso garen aldetik, seme-alabak izaten ditugu behin eta berriz hizpide eta kezka iturri. Alde horretatik jorratuko dugu, beraz, gaia. Hiru arlotatik helduko diogu, gainera: bat, nolakoak diren gure seme-alabak, jaiotza-ordenaren arabera; bi, familiak gero eta txikiagoak direnez, aipamen berezia egingo diegu honen inguruko auzi-mauziei eta seme-alaba bakarrei. Azkenik, hiru, seme-alabak hezteko orduan izaten ditugun kezka eta zalantzak.

Gaiari heltzerakoan, behin eta berriz joko dugu adituengana. Hauengandik jasoko dugu informazioa, eta gure jarduna, askotan, jaso dugun informazioa besteei ematea izango da. Segur aski, oso ondo etorriko zaigu hau bizitza errealerako, hamaika aldiz egingo dugu-eta antzeko zerbait! Dena den, geuk ere geure iritzia emateko izango dugu aukera, adituak ez baitira guztiaren jakitun.

2. IKASTUNITATEAREN IBILBIDEA

1. SARRERA

- Ikastunitatearen helburuen eta lan-egitasmoaren aurkezpena
(6. or.)

A ATAZA: SEME-ALABAK, NOLAKOAK?

- Pertsona baten izaera deskribatu, egoera batean nola jokatzen duen ikusita.
- Deskribapen bateko xehetasunak jaso.
- Nork bere seme-alabak aurkeztu.
- Film batean ikusitako bertsio ezberdinen bidez, gertaera bat berreraiki.
- Seme-alaben edo norberaren bihurrikeriaren bat kontatu.

(8. or.)
MINTZ/ENTZ

B ATAZA: GERO ETA GUTXIAGO

- Irratiko elkarrizketa bat entzun, eta aurreikuspena egiaztatu.
- Testu bateko ikuspegi nagusiak jaso, artikulua ikuspegi osoa izateko.
- Irakurritakoa elkarrizketa, diagrama bat erabiliz.
- Nork bere iritzia eman irakurritako artikulua gainean.

(18. or.)
ENTZ/IRAK/MINTZ

C ATAZA: SEME-ALABAK HEZIZ

- Irudietan oinarrituta, nola jokatuko duten adierazi.
- Testu bateko ideia nagusiak jaso, besteei horren berri emateko.
- Nork bere iritzia eman entzundako eta irakurritako iritzien gainean.

(26. or.)
MINTZ/IRAK/ENTZ

MATERIAL OSAGARRIAK A) GAUR AFALDU GABE

- Arazoaren inguruan protagonista bakoitzak esango duena aurreikusi.
- Testu bat gainirakurri, mezua bereizteko.

(31. or.)
MINTZ/IRAK

AUTOEBALUAZIO--ORRIA

(34.or.)

SEME-ALABAK, NOLAKOAK?

1

- Hemen hainbat hitz eta hitz-multzo dituzu, pertsonen izaera deskribatzeko balio dutenak. Ea ondo ulertzen dituzun denak.



- Film-zati batean bi anaiaren arteko liskarra ikusiko duzu. Ikusi, eta esan nolakoa den bakoitza, goiko hitzak erabiliz.

1. anaia	2. anaia

- Orain, sailka itzazu ondoko taulan goiko hitzak eta hiltz-multzoak, zure iritziaren arabera:

Onak	Txarrak

- Gehiago bururatuz gero, erantsi bi zutabeetan. Euskaraz nola adierazi ez baldin badakizu, ez larritu; idatzi gaztelaniaz, gero denon artean topatuko dugu eta euskaraz adierazteko modua.

2

- Seme-alabak nolakoak diren jakiteko egin duten inkesta baten berri entzungo dugu orain. Bi aldiz entzungo duzue. Lehen entzunaldian bete ezkerreko zutabea. Bigarreanean, berriz, eskuinekoa.

	Nolakoak dira?	Zergatik?
Seme-alaba zaharra		
Seme-alaba gaztea		
Tarteko seme-alaba		

- Saiatuko al zara hurrengo esaldiak euskaratzen?
 - Est@s suelen ser más revolucionari@s.
 - El/la mayor suele abrir las puertas.
 - Suelen tener más sentimiento de culpabilidad.
 - ¿Y sobre el/la más pequeñ@?
 - Suelen ser más desinhibid@s y alegres que l@s demás.
 - Y eso porque ha crecido con más de un padre.

- Irakasleak lehengo entzungaiaren transkripzioa emango dizu. Aurki itzazu itzuli dituzun esaldiak tes-tuan eta alderatu zuen itzulpenarekin, baina letra beltzez duzuen zatia bakarrik; bestea ez zaigu axola. Hitz egin zuen artean zertan asmatu duzuen eta zertan ez.
- Orain, hitz egindakoa gogoan, euskaratu beste esaldi hauek:
 - L@s del medio suelen ser más rebeldes y negociadore/as
 - No creo que tuviera más libertad que ell@s.
 - No creo que tuviera más libertad que ell@s.



- Hirunaka jarrita, orain arte itzuli dituzuen esaldiak aztertu behar dituzue. Esaldi horiek hiru multzotan bana daitezke, segun eta zein testuingurutan erabiltzen diren. Saia zaitzete multzoak egiten eta mul-tzo bakoitza izendatzen edo bestelako azalpenen bat jartzen.

3

- Irakur itzazu eskolatik bidalitako ohar hauek, eta azpimarratu ikasleen izaeraren berri ematen duten zatiak.

Gelan gustura ikusten dut, eta, orokorrean, jarrera baikorra azaltzen du. Gauza berriak ikasteko gogoazaltzen du, eta langile aritzen da. Materialarekin, bai gelakoarekin, bai berearekin, txukuna eta arduratsua da. Gelako ikasleekin harreman ona du. Taldeko elkarrizketetan oso gustura parte hartzen du, eta, utziko banio, gai da ordu laurden oso batean hizketan aritzeko.

Arduratsua eta langilea da. Ikasketarako gogoazaltzailea da, baina lanean hasatea asko kostatzen zaio. Taldean eta lagunekin ongi moldatzen da.

Oraindik ere, bere burua eta eskolako materiala antolatzen eta txukuntzen asko saiatu behar du. Idazketan ere alper ibili da, eta maila hobea eman dezake. Harremanetan gorabeherak izan arren, oro har, guztiekin ondo moldatzen da, baita irakaslearekin ere.

Bere emaitzak lehen bezala mantendu diren arren, jarreran ez da hobekuntzarik nabaritu: ez dago zentratua eta pailazokeriak egiten ibiltzen da. Partaidetza handiagoa ere eskatu behar diogu, gehiago egin dezake eta. Etxeko lanetan ez du hutsegiterik eduki, baina bere apalek ez dute txukuntasun-izpirik ezagutu. Lagunartean ondo moldatzen da.

- Orain, zuen txanda. Etxetik ekarri duzuen argazkia baliatuz, zuen seme-alaba(k) aurkeztu behar dizkiozue elkarri. Hori egin aurretik, ordea, aurkezpena prestatu egin behar duzu. Horretarako, jaso itzazu taula honetan zure seme-alaba nolakoa den adierazteko erabiliko dituzun hitzak, esamoldeak...; baina psikologikoak bakarrik.

1.seme-alaba	
2.seme-alaba	
3.seme-alaba	

- Prestaketa amaitutakoan, kontatu lasai. Hona hemen adibide bat: Iker autoritario samarra da, etxeko gauzetan parte hartzen ez duena...



- Entzuten ari zareten bitartean, berriz, erne izan belarriak, eta jaso datuak ondoko laukian:

	Nolako da
Seme-alaba zaharra	
Seme-alaba gaztea	
Tarteko seme-alaba	
Seme-alaba bakarra	

- Entzuten ari zinen bitartean, seguru, jakin-mina piztu zaizula punturen batean edo bestean. Bada, orain da garaia pare bat galdera egiteko.


4

- Bakoitzak *Bezeroa* filmeko pasarte bat ikusiko duzue. Bihurrikeria beraren hainbat bertsio daude. Egokitu zaizuen pasartea ikusi, eta aukeratu hurrengo zerrendatik zuen bertsioa eraikitzeko egokiak direnak.





· autoan sarrarazi	· hiltzen saiatu
· zigarroa hartu	· gizona salbatu
· mutikoa harrapatu	· autoa ikusi
· bere burua hil	· pistolarekin mehatxatu
· basora joan	· auto bat basora etorri
· autotik ihes egin	· ikustera hurbildu
· gizonarekin hitz egin	· gorpua non dagoen esan
· autotik irten	



- Orain, bakoitzak zeun bertsioa duzuela, gertatutakoa elkarrekin berreraikitzen saiatuko zarete.
- Arestiko hitz-zerrendari erreparatuko diogu orain. Edozein aditz hartzen dugula ere, aditz hori hainbat deklinabide-kasurekin batera agertuko zaigu, eta beste hainbatekin inoiz ez. Arestiko aditz-zerrendari erreparatuta, esan zein dauden ondo eta zein ez.

Adib.: Jan: etxean (ondo), etxera (txarto)

Sartu	autoan, autora, leihotik, lagunarekin, lagunarentzat, lagunarengana, lagunaz, lagunak, liburua, liburuari
Hartu	autoan, etxera, etxetik, lagunarekin, lagunarentzat, lagunarengana, lagunaz, lagunak, liburua, liburuari
Harrapatu	autoan, autora, leihotik, lagunarekin, lagunarentzat, lagunarengana, lagunaz, lagunak, laguna, lagunari
Hil	autoan, autora, leihotik, lagunarekin, lagunarentzat, lagunarengana, lagunaz, lagunak, laguna, lagunari
Joan	autoan, autora, etxetik, lagunarekin, lagunarentzat, lagunarengana, lagunaz, lagunak, laguna, lagunari
Ikusi	autoa, autora, leihotik, lagunarekin, lagunarentzat, lagunarengana, lagunaz, lagunak, laguna, lagunari
Hitz egin	autoan, etxera, leihotik, lagunarekin, lagunarentzat, lagunarengana, lagunaz, lagunak, laguna, lagunari
Etorri	autoan, etxera, etxetik, lagunarekin, lagunarentzat, lagunarengana, autoz, lagunak, laguna, lagunari
Salbatu	autoan, etxera, etxetik, lagunarekin, lagunarentzat, lagunarengana, autoz, lagunak, laguna, lagunari
Saiatu	autoan, etxera, etxetik, lagunarekin, lagunarentzat, lagunarengana, autoz, lagunak, laguna, lagunari
Mehatxatu	autoan, etxera, etxetik, pistolarekin, lagunarentzat, lagunarengana, pistolaz, lagunak, laguna, lagunari
lhes egin	autoan, atzerrira, etxetik, lagunarekin, lagunarentzat, lagunarengana, autoz, lagunak, laguna, lagunari
Hurbildu	autoan, etxera, etxetik, lagunarekin, lagunarentzat, lagunarengana, autoz, lagunak, laguna, lagunari
Irten	autoan, errepidera, autotik, lagunarekin, lagunarentzat, lagunarengana, autoz, lagunak, laguna, lagunari
Egon	autoan, etxera, etxetik, lagunarekin, lagunarentzat, lagunarengana, autoz, lagunak, laguna, lagunari

5

- Atazaren hasieran haur batzuek egindako bihurrikeria bat ikusi dugu. Gureek ere egingo zuten zer-bait, nahiz eta ez izan hain larria. Horixe egingo dugu orain, gure seme-alabaren batek egindako bihurrikeria bat kontatu, ahal dugun xehetasunik handienarekin.
- Horretarako, arestian egin bezalaxe, pentsatu eta ekintzak zerrendatuko ditugu:
 - Zigarroa lapurtu
 - Piper egin
- Ondoren, zerrenda osatu dugunean, eta aditz bakoitzari bere deklinabide-kasua ondo jarri diogula ziurtatu ostean, pentsatu aditzean, hau da, zein aditz laguntzaile jarriko diogun ekintza bakoitzari.
 - Zigarroa lapurtu: zen, zuen, zidan, ninduen...?
- Hori egindakoan, prest daukagu "txuleta" ondo kontatzeko; beraz, ikaskideei kontatuko diegu gure seme-alabaren batek egindako bihurrikeria.



GERO ETA GUTXIAGO

1

- Gelako ikaskideen erdiek A zutabea osatzeari ekingo diozue; beste erdiek B zutabea.

A. Seme-alabak ekartzeagatik zein laguntza daude?	B. Zein dira haur gutxi jaiotzearen arrazoiak?

- Bikoteka jarrita (A zutabea betetakoa eta B zutabea betetakoa), osa ezazue zutabea, bikoteko kideari bere iritzia eskatuta.
- Hasierako taldera itzulita, denon artean truka ezazue jaso duzuen informazio berria.
- A taldekoek irratsaio baten zati bat entzungo duzue, seme-alaben kopurua handitzeko gobernuak hartu dituen neurriei buruzkoa. B taldekoek ere irratsaio baten zati bat entzungo duzue, baina jaiotzen jaitsiera justifikatzeko ematen dituzten arrazoiari buruzkoa. Entzun orain irratiko elkarrizketa, eta jaso informazioa dagokion zutabeetan.

A. Gobernuaren neurriak		B. Arrazoiak
Neurriak	Solaskideen balorazioa	

- Binaka, trukatu elkarri irratitik jaso duzuen informazioa; ondoren, osatu taulan hutsik daukazuen zutabea; eta, azkenik, egiaztatu hasieran egindako aurreikuspena zenbateraino bete den.
- Jarraian, ikaskideak eman dizun informazioa egiaztatu behar duzu. Horretarako, entzun grabazioa, eta egiaztatu zure ikaskideak emandako informazioa. Zerbait gaizki baldin badago, zuzendu; eta, falta bada, erantsi.
- Bikotera itzulita, zuzendu elkarrekin lana.
- Gaiak elkarrekin hitz egiteko aukera asko ematen ditu. Hona hemen galdera bat, hizpidea jartzen lagun dezakeena:
 - Zuen ustez, nahikoak al dira diru-laguntza horiek?


2

- Argazkian dituzue bi famili eredu: seme-alaba bakarrekoa eta familia ugaria. Saia zaitezte bakoitzaren alde onak eta txarrak zerrendatzen, baina zuetako erdiak gurasoen ikuspegitik begiratuta eta beste erdiak hurren ikuspegitik.



Seme-alaba bakarria	Familia ugaria
Alde onak: • • Alde txarrak: • •	Alde onak: • • Alde txarrak: • •

- Binaka jarri, eta osatu gurasoen aldetiko gogoeta haurren aldetikoarekin.
- Neba-arrebarik gabeko hurrei buruzko artikulua baten zati bat irakurriko duzu orain. Ondoren, saiatu betetzen diagramaren dagokizun zatia.



- Zati bera irakurri duzenok elkarrekin jarrita, alderatu diagraman idatzi duzuen, eta trukatu zuen interpretazioak.
- Jarraian dituzu hiru hitz-multzo. Aukeratu zuri dagokizuna; alegia, irakurri berri duzun artikuluzatiari dagokiona. Aurkitu hitz hori non dagoen testuan, eta, ondoren, aukeratu hitz bakoitzarentzat esanahirik egokiena.

A	Mendebalde	Europa, Afrika, Asia
	Hankagorri	gaixotasun bat, seme-alabak, gurasoak
	Sendi	lehengusuak, familia, auzoa
	Gertakari	anekdota, iskanbila, istripua
	Urtebetetze	urte bat egin duen eguna, jaiotze eguna, urtero jaiotza
		ospatzen duen eguna
	Olgetakide	ikasteko laguna, txikitako laguna, jolasteko laguna
	Mukuru	opariak sakabanatuta zeuzkan, opariak puskatuta zeuzkan, opari asko zeuzkan
	Nerabezaro	0-6 urte bitarteko adina, gazte direneko adin-tartea, haur izateari utzi eta gazte bihurtzen direneko adin-tartea

B	Berekoi	dena besteei uzten diona, inorekin jolasten ez dakiena, dena beretzat nahi duena
	Ezaugarri	haur bakarti bat, seme-alaba bakarra, zerbait nolakoa den adierazten duen zerbait
	Aztura	asperdura, ohitura, azukrea
	Bakartu	inorekin harremanik gabe, banaka-banaka, beti bakarrik ibiltzea
	Banatu	batu, bereizi, besteei eman
	Hizpide	hizketa-gaia, berritsua, seme-alaba bakarrak

C	Antzeman	nabaritu, harrapatu, konturatu
	Antzeko	ezberdin, igualtsu, aspaldiko
	Izaera	dauzkagun gauzak, izan nahi duguna, izateko modua
	Ausartu	nahi izan, atrebitu, desio izan
	Muga	zerbait banatzen duena, adin egokia, zerbait amaitzen den garaia
	Aburu	burua, pentsamendua, iritzia
	Heldu	haur izateari utzi, zerbait hartu, iritsi

- Irakur ezazu berriz zure testu-zatia, eta aurkitu ERE hitza. Hitz hori agertzen bada, jaso hemen esaldi osoa.

-
-
-
-

- Artikuluaren zati ezberdinak irakurri dituzuenak elkartuta, diktatu ikaskideei zure esaldiak, eta kopiatu beraiek esandakoak.
- Mugitu ERE hitza esaldiaren barruan, eta jarri beste hitzen ondoan. Gogoratu, esaldiak beti ondo gelditu behar du.

3

- Jarraian, arestian irakurritako testuaren berri eman behar diozue elkarri. Hori egin aurretik, ordea, hiztegia errepatatuko dugu, euskara txukuna erabiltzen saiatu beharko duzu eta. Ondoren dituzu hitz horien gaztelaniazko baliokideak. Gogoratzen al zara, begiratu gabe, zein zen euskarazkoa? Saiatu jartzen ahal dituzun guztiak. Alderatu emaitza zure testu-zati bera irakurri dutenekin.

A	B	C
Cumpleaños: Familia: Repleto: Occidente: Compañer@ de juego: Adolescencia: Anécdota: Hij@s:	Repartir: Egoista: Tema de conversación: Característica: Aislar: Costumbre:	Hacerse adult@: Parecid@: Atreverse: Opinión: Darse cuenta: Límite: Forma de ser:

- Testu ezberdinak irakurri dituzuenak elkartuta, eman elkarri zuen zatiko ikuspegien berri. Horretarako, goiko diagramak baliatu behar dituzue. Baita prestatu duzuen hiztegitxo ere.
- Har ezazue A atazako 3. ataleko seme-alaba bakarren deskribapena, eta komentatu zertan datoren bat artikuluan emandako ikuspegiekin eta zertan ez.
- A atazan seme-alabak nolakoak diren argitzen aritu gara. Orain ikusi dugu artikulua zer dioen. Egiazta ezazue bat datozen bi ikuspegiak.

4

- Ondoko taulan dituzu artikuluko hainbat iritzi eta beste hainbat topiko. Jar ezazu X dagokion laukian. Azken zutabeetan idatzi arrazoiak eta zehaztapenak.

Seme-alaba bakarra(e)k...	Bat nator	Ez nator bat	Bat nator, baina	Arrazoiak, zehaztapenak
1. Adin bertsuko haurrekin harremanak maiz izan behar dituzte.				
2. Opari gehiegi jasotzen dituzte.				
3. Kontrolatuago egoten dira.				
4. Gauzak gehiago banatzen dituzte.				
5. Txintxoagoak dira.				
6. Beti amaren babesa bilatzen dute.				
7. Askatasun gutxiago izaten dute.				
8. Ez dituzte normalean min hartzeko jostailuak izaten.				
9. Ezberdinak dira alaba bakarrak eta seme bakarrak.				

- Ondoren, ager itzazue zuen iritziak ikaskideen aurrean.
- Saia zaitetz hitz egindakotik adostasun eta azadostasun nagusiak adierazten:

Adostasunik handieneko puntuak	Adostasunik txikieneko puntuak

- Zuregatik balitz, zenbat seme-alaba izan nahiko zenituzke? Zergatik?.



SEME-ALABAK HEZI

1

- Zigorrei buruzko inkesta baten emaitzak entzungo dituzu jarraian. Entzun bitartean, jaso itzazu ondoko esaldi honetan falta diren ehunekoak.
 - % ____ a zigor fisiko arinen alde agertu da inkestan.
 - % ____ ak garrasi egiten du haserretzen denean.
 - % ____ ak dio haurrak beren gelan sartuz zigor omen daitezke.
 - % ____ ak pentsatzen du haurrak ez jotzeko modak haur gaizki heziak sortzen dituela.
- Orain, haurrek egindako bihurrikeriak jasotzen dituzten hainbat film-pasarte ikusiko dituzu. Horko horiek zure seme-alabak balira, kasu bakoitzean nola jokatu zenuke eurekin? Pentsa ezazu une batez.





- Hirunaka jarrita, hitz egin ezazue zuen taldekoon jokamoldeei buruz, eta jaso itzazue taula honetako ezkerreko zutabea.

Gure jokamoldea	Aldatuko al dugu zerbait?


2

- Zigorrei buruzko bi testu izango dituzue orain langai. Gelaren erdiak irakugaia eta beste erdiak entzungaia baliatuko duzue. Entzun edo irakurri ahalean, jaso itzazu adituen iritzia ondorengo taulan.

Zer egin behar da?	Zer ez da egin behar?

- Testu bera landu duzuenak elkarrekin jarrita, alderatu jaso duzuen informazioa.
- Jarraian, testu ezberdina landu duzuenok binaka jarrita, kontatu zuen ikaskideari jaso dituzuen aholkuak.
- Komentatu denon artean bi psikologoak zertan datozen bat eta zertan ez.





- Jarraian dituzu entzungaitik ateratako hainbat hitz-multzo. Multzo bakoitzean egon behar ez lukeen hitz bat dago. Ea topatzen dituzun!
 - Zaplastekoa, zigorra, belarrondokoa, ipurdikoa
 - Garrasi egin, mehatxatu, jo, jipoitu, nazkatu
 - Jarrera, lotsagabea, gaizki hezia, autonomia, norbere buruaren jabe
 - Nerabea, nagusia, haurra, heldua, adurra
 - Baretu, arauak, zirikatu, gutxietsi
 - Ohitura, amorrua, sumatu, urduritasuna, ondorioa
- Alderatu emaitzak aldamenekoarekin: zein dira egon behar ez zuten hitzak eta zergatik.
- Irakasleak emandako testuaren gainean eta adibideari jarraiki, azpimarra itzazu testuan iritziak emateko erabiltzen diren formak.
- Alderatu guztion lana, eta idatzi zerrenda osoa arbelean.

3

- Lehentxeago psikologoek zigorrei buruz eman dituzten iritziak gogoan hartuta, idatz itzazu ondorengo taulan onartzen dituzun bi ideia eta onartzen ez dituzun beste bi.

Bat nator	Ez nator bat

- Hirunaka, har itzazue 1. atalean eman dituzuen iritziak, eta alderatu psikologoek eman dituztenekin. Zertan zaudete ados? Zertan ez?
- Eledun batek taldean hitz egindakoaren berri eman behar du. Hori egin baino lehen, ordea, presta ezazue pixka bat zuen jarduna. Horretarako, erabili ondorengo taula, eta ezker aldean jarri iritzia adierazteko erabiliko duzun forma, gero, "txuleta" modura erabil ahal izateko.



iritziak emateko formak	iritziak

- Eman klaseari zure taldekoen iritzien berri.


GAUR AFALDU GABE

1


- Hainbat hutsune dituen istorio bat irakurriko duzue orain. Ez egin jaramon handiegirik hutsune horiei. Erreparatu iezaiozu testuari, eta bilatu hurrengo marrazkiko pertsonaia bakoitzari zein ezaugarri ematen dioten. Idatzi ezaugarri horiek marrazkiaren ondoan.



- Orain, taldeka, erreparatu testuko hutsuneei. Hutsune batean zuzendariak esan duena ezabatu dugu, beste batean aitak dioena, beste batean Nikolasek pentsatzen duena eta, laugarrenean, etxean gertatzen dena. Irakasleak zure taldeari eman dion egoera hartuta, pentsatu zer falta den.
- Idatzi dagokion laukian zure taldeko ideia nagusiak.



Zer pentsatuko ote du Nikolasek?




Zer esango ote du zuzendariak?



Zer esango ote du aitak?

Zer gertatuko ote da etxean?



- Talde bakoitzeko bozeramaile batek ideia nagusiak adieraziko ditu. Entzun itzazu, eta osatu gainerako laukiak.

2

- Taldeka jarrita, irakasleak emango dizkizuen testu-zatiak irakurri, eta txertatu itzazue testuko hutsunetan. Ba al dakizue testu-zati bakoitza arestiko zein egoerari dagokion?
- 1 atalean jaso dituzuen oharrak aintzat hartuta, zein neurritan asmatu duzue bakoitzak zer esango zuen? Jaso hurrengo taulan zertan asmatu duzuen eta zertan ez:

Zertan bai	Zertan ez

AUTOEBALUAZIO-ORRIA

Hona hemen, atazaz ataza, autoebaluaziorako puntuak. Zeuri edo ikastaldeari dagokizue ebaluazioa noiz egin erabakitzea, ikastunitatearen amaieran dena batera, ala, nahiago izanez gero, atazaka.

Pentsatu apur batean, eta erabaki ea ados zauden ondorengo baieztapenekin. Saia zaitetz zure erantzunaren zergatiak aztertzen.

Azkenik, erkatu zure iritziak taldeko kideekin eta irakaslearekin.

1. ATAZA: Seme-alabak, nolakoak?

1. Pertsonen izaera deskribatzen eroso sentitu naiz eta ondo moldatu naiz.
2. Pertsonen izaera deskribatzeko hitzak eta hitz-multzoak ikasi ditut. Adibidez:

3. Konparazioak egiteko esaldiak itzultzen eta egiten ondo moldatu naiz.
4. Umeen bihurrikeriak kontatzeko "txuletak" antolatzen ongi moldatu naiz. Gero, kontatzerakoan ere, eroso sentitu naiz.

2. ATAZA: Mafalda eta bere lagunak.


1. Seme-alabak ekartzeagatik dauden laguntzak eta haur gutxi jaiotzearen arrazoiak aurkezten zituen irratsaioa ulertzeko ez dut arazorik izan.
2. Neba-arrebarik gabeko hurrei buruzko artikulua ulertzeko ez dut arazorik izan.
3. Artikuluko hitzen esanahia aukeratzen gustura aritu naiz, eta hitz berriak ere ikasi ditut. Adibidez:


4. Ondo azaldu dut neure iritzia seme-alaba bakarreko familiei buruz.


3. ATAZA: Seme-alabak hezi.

1. Ondo ulertu ditut adituak zigorrei buruz eman dituen aholkuak.
2. Gustura nago zigorren gaia dela eta irizpide berriak jaso ditudalako.
3. Iritziak emateko forma berriak ikasi ditut. Gustura gelditu naiz, gainera, psikologoek eman dituzten iritzien gainean adostasuna eta ezadostasuna adierazterakoan.










HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

Eusko Jurlaritzako erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco



Hernaniko udal-euskaltegia



ISBN 84-95827-04-2



9 788495 827043